INFORMAZIO OHARRA

# Tolosaldeak XXI. mendeko auzolanean sakondu du

- *Tolosaldeko udalerriek, elkarteek eta eragile ekonomikoek auzolanaren kulturaren inguruan bat egin dute proiektu aitzindari honetan*

- *Urtebetez, Gipuzkoako etorkizuna eraikitzeko balio dezaketen lankidetzako gobernantza-tresnekin esperimentatuko da*

**Berastegi, 2021eko uztailak 23.** Ostiral honetan Berastegin "XXI. mendeko Gipuzkoako eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera" proiektuaren aurkezpena eta lehen saioa izan da.

Antolakuntzan diharduten hiru erakundeetako ordezkariak, Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea; Huhezi Koop. E.; eta Eusko Ikaskuntza azaldu dutenez, ekimena "esperientzia berritzailea da, Tolosaldean auzolanaren kulturaren gaitasunak esploratzera bideratua", aurre saiakera gisa hartu daitekeena beste eremu eta eskaletara egokituta, hedatzeko.

Ostiraleko saioak harrera zabala izan du, eta bertaratutako pertsonei auzolanaren kulturaren balioak zehaztasunez ezagutzeko aukera eman die, politika publikoen mesedetan eta elkarlanaren gobernantzaren sendotzean. Saioa amaitzeko, metodologia ireki eta praktikoari jarraituz, parte hartzeko dinamika bat garatu da herriko plazan, herritarren interesa piztu duenak.

Udalerriek, ekonomia- eta garapen-eragileek eta eskualdeko elkarte-sareak parte hartuta, gaur hasitako lanak 2022ko udara arte luzatuko dira, lau fasetan egituratuta:

1. Kontzeptualizazioa: auzolanaren kontzeptua euskal tradizioan eta egungo errealitatean definituko da, baita elkarlaneko gobernantzarekin dituen loturak ere.

2. Diseinua: bigarren fasean, auzo-kulturaren eta lankidetzaren zerbitzurako ekimen bat taxutuko da.

3. Esperimentazioa: esperientzia praktiko baten bidez, herritarren eta gizarte zibilaren gaitasun estrategikoak sustatzeko ekimenaren

eraginkortasuna frogatuko da.

4. Ebaluazioa: azkenik, emaitzak ebaluatuko dira, Gipuzkoako jarduera komunitarioaren alde hedatzeko.

"XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera " proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du Etorkizuna Eraikiz programaren GIPUZKOALAB 2021 deialdian.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

NOTA INFORMATIVA

# Tolosaldea explora el auzolan del siglo XXI

- *Municipios, asociaciones y agentes económicos de Tolosaldea se unen en torno a la cultura de auzolan en un proyecto pionero*

- *A lo largo de un año se experimentará con herramientas de gobernanza colaborativa que puedan servir para la construcción del futuro de Gipuzkoa*

**Berastegi, 23 de julio de 2021.** Este viernes, en Berastegi, ha tenido lugar la primera sesión y la presentación pública del proyecto "XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera" (*El auzolan en la construcción de la Gipuzkoa del siglo XXI, ¿cuestión del pasado o llave del futuro? Ensayo en Tolosaldea*).

Representantes de las tres entidades organizadoras, Tolomendi – Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea, Huhezi Koop. E. y Eusko Ikaskuntza, han descrito la iniciativa como "una experiencia innovadora orientada a la exploración de las potencialidades de la cultura de auzolan en la comarca de Tolosaldea", como paso previo a su extensión a otras zonas y a otras escalas del territorio.

La sesión de este viernes ha tenido una amplia acogida y ha permitido a las personas reunidas conocer en detalle los valores de la cultura de auzolan en beneficio de las políticas públicas y el arraigo de la gobernanza colaborativa. Para cerrar la sesión, siguiendo una metodología abierta y práctica, se ha desarrollado una dinámica participativa en la plaza del pueblo que ha suscitado el interés de los y las vecinas de la localidad.

Con participación de municipios, actores económicos y de desarrollo, así como del tejido asociativo de la comarca, los trabajos iniciados hoy se prolongarán hasta el verano de 2022 estructurados en cuatro fases:

1. Conceptualización: se definirá el concepto de auzolan en la tradición vasca y en su realidad actual, así como sus vínculos con la gobernanza colaborativa.
2. Diseño: durante la segunda fase se perfilará una iniciativa al servicio

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

de la cultura vecinal y colaborativa.

3. Experimentación: por medio de una experiencia práctica se pondrá a prueba la eficacia de la herramienta para promover las actitudes estratégicas de la ciudadanía y de la sociedad civil.
4. Evaluación: por último, se evaluarán los resultados de cara a su extensión en favor de la actividad comunitaria en el territorio guipuzcoano.

El programa “XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera” cuenta con el apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del programa Etorkizuna Eraikiz en su convocatoria GIPUZKOALAB 2021.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)